



EUSKARAREN IBILIA, ETSIPENETIK ITXAROPENERA

Patxi Baztarrika

*Euskararen Aholku Batzordeko kidea eta Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako sailburuorde izandakoa (2005-2009)*

Helbide elektronikoa: px.baztarrika@andoain.org

0. EUSKARAREN BILAKAERA SOZIALA: PARADIGMATIKOA ETA PARADOXIKOA

Euskararen erabilera normalizatzeko helburuarekin azken hamarraldio-tan garatutako prozesua, hiru bider da paradigmaticoa. Lehenik, paradigmaticoa da azken hiru hamarkadetan euskarak bizi izan duen bilakera sozialak erakusten duelako —argi asko erakutsi ere— hizkuntza ahuldu bat berrindartu daitekeela, hots, hegemonikoak ez diren hizkuntza guztiak ez daudela lehentxeago edo geroxeago desagertzera kondenatuta. Bigarrenik, paradigmaticoa da erakusten duelako hizkuntza minorizatu baten biziberritze prozesuaren arrakasta neurri handi batean hiru faktoreren uztarduraren emaitza dela; zehatz esanda, euskararen ibilbideak erakusten du lege-babes egokia, hizkuntza politika eraginkorra eta gizartearen atxikimendua (adostasun politiko eta sozial batek hauspotua) uztarri berean lotuta doazen heinean biziberritu daitekeela hizkuntza ahuldu bat. Eta hirugarrenik, paradigmaticoa da erakusten duelako, hizkuntza biziberritze prozesuetako askotariko mugen artean muga sozialak direla prozesuen erritmoak guztiz baldintzatzen dituztenak, *nahi* izate hutsa ez delarik aski *ahal* izateko.

Laburtu beharrez hitz bitara errenditu beharko bagina euskararen hamarraldiotako bilakaera soziala adierazteko, hazkundera eta paradoxa hitzak erabiliko genituzke. Euskara inoiz izan ez duen hiztun kopurua eskuraturik iritsi da mende honen hasierara, eta inoiz bereak izan ez dituen hainbat esparru funtzional eta sozialetan bereganatu du tokia. Horra hazkundera; hona, baina, paradoxa, hazkundera prozesu hori ez baita berdin gertatu euskararen hiru lurralde nagusietan: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean. Hiru lurraldeotan, hain zuzen ere, lehen aipaturiko hiru faktore horiek (legeria, hizkuntza politika, herritarren atxikimendua) oso errealitate desberdina dute. Horrek guztiorrek erakusten du posible dela hizkuntza bat biziberritu eta indartzea, utopia egingarria dela hori; baina, aldi berean erakusten du, hizkuntza-biziberritze prozesuen arrakasta edo porrota besteak beste aipatu berri ditugun hiru baldintza horien arabera izan ohi dela. Orobat, aurrerapauso sendoenak eman diren lurraldean, EAEn alegia, gertaturikoaren argitan bistan da errealitate soziala dela euskararen biziberritze prozesuaren abiaduran zuzenean eragiten duena, prozesu hori azkartzeko mugak oro har ez baitira legerian edo herri-aginteen jardunean atzeman, euskal gizartearen beraren baitan baizik.

Horregatik guztiagatik da euskararena, nik uste, adibide paradigmaticoa hizkuntzen biziberritze ereduen artean. Eta halaxe aitortua izaten ari da, gero eta gehiago, mundu zabaleko hizkuntza adituen artean.

1. EUSKARA EZ DAGO HILZORIAN

Pozarren, beraz, euskarak izan duen gizarte-bilakaeraren gaineko gogoe-taren atarian ukazio bat jar dezakegu: euskara ez dago hilzorian.

Ohikoak izan dira, gurean, euskararen hil-kanpaiak, eta ez beti asmorik onenez astinduak; ohituta gaude euskararen heriotzaren iragarpena entzutera; sentimendu eta ikuspegi ezberdinetatik, gainera, batzuek pozik eta beste batzuek triste iragarri baitute euskararen galera.

Euskararen historian ia beti presente egon da etsipenezko sentipena. Aspaldikoak dira euskararen atzerakadaren aldarrikapen kezkatuak. XVIII. eta XIX. mendeetan, esaterako, Agustin Kardaberaz idazlea eta Humboldt hizkuntzalaria ditugu horren lekuko.

Egia da, bai, Hego Euskal Herriari dagokionez, XIX. mendean eta XX. mendeko lehen zazpi hamarkadetan gertaturiko gorabehera politiko eta sozial garrantzitsuenek (unean uneko salbuespenak salbuespen) euskararen ahulezia areagotu zutela etengabe. Erabakigarriak izan ziren horretan, besteak beste, autogobernuaren galera, Espainia estatu-nazio gisa finkatzea, estatuan hizkuntza “bakarra” zurrakaitz gisa hartzea eta gainerakoak baztertzea, industrializazioarekin batera gertaturiko eraldaketa sozio-demografikoa, eta euskaldun eliteek euskararekiko izan zuten axolagabekeria.

Euskararena, nik uste, adibide paradigmaticoa hizkuntzen biziberritze ereduen artean. Eta halaxe aitortua izaten ari da, gero eta gehiago, mundu zabaleko hizkuntza adituen artean.

Euskararen historian ia beti presente egon da etsipenezko sentipena.

*Arazoak arazo, hiltzorian
dauden hizkuntzen
egoerarekin ez du
zerikusirik euskarak,
oraindik ere
indarberritzen jarraitu
behar handia duen arren.*

Kontuak bestelakoak izan dira, ordea, azken ia hogeita hamar urteotan. Zorionez, gaur egun, euskararen bizi-indarraren adierazleak ez datoz bat hiltzorian dauden hizkuntzenekin, ezta gutxiagorik ere. Esate baterako, munduan ezagutzen diren lege-babes gorenetakoa du euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan —biztanleria gehien duen euskararen lurraldean—, nahiz eta arrunt apalagoa duen Nafarroan, eta hutsala gaurdaino Iparraldean. Halaber, euskararen ezagutzaren adierazleak arrunt hazi dira urteotan, eta erabilerarenak ere hazi dira, guztiok daki-gunez. Orobat, estimu handitan dute herritarrek euskara. Nola ulertu, bestela, milaka guraso erdaldun elebazarrek euskarazko irakaskuntzaren aukera hautatu izana beren seme-alabentzako? Arazoak arazo, hiltzorian dauden hizkuntzen egoerarekin ez du zerikusirik euskarak, oraindik ere indarberritzen jarraitu behar handia duen arren.

2009ko otsailean ezagutu genuen Unescok moldaturiko “Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa”. 1995 eta 2001ean ere eginak ditu Unescok helburu berarekin hizkuntza-atlasak. 2009ko atlasean jasotako balorazioa bilakaeraren perspektiban aztertu ahal izateko ezinbestekoa da aurrekoetan, 2001ekoan bereziki, jasotakoarekin alderatzea.

Bost maila edo kategoriatan sailkatzen ditu Unescok nolabaiteko “arriskuan” dauden hizkuntzak. Arrisku txikienetatik handienekorako hurrenkeran (batetik bostera) finkatuta daude aipatutako kategoriak. Hurrenkera horretako mailarik *onenean* —arrisku txikienean esan nahi dut— jarri dute euskara, lehenengo kategorian: “ahuldutzat edo zaurgarritzat” jotako seihun eta zazpi hizkuntzetariko bat da euskara. “Azken hiru belaunalditan desagerturikoak” dira (200 hizkuntza) beste muturrean ageri direnak, bosgarren kategorian alegia. Tartean dira, laugarren kategorian zehatz esanda, “egoera kritikoa” daudenak (538); hirugarren kategorian, berriz, “arrisku larrian” daudenak (502), eta bigarrenean “arriskuan” daudenak (632).

Aitzitik, 2001eko atlasean, Espainiako partean “arriskuan” eta Frantziako aldean “arrisku larrian” kalifikatu zuten gure hizkuntza; 2009ko 2. eta 3. mailetan, hurrenez hurren. Beraz, Unescoko hizkuntzalariek egoera arrunt okerragoan ikusi zuten 2001ean euskara 2009an baino. Argi dago, horrenbestez, Unescoren ikerketaren ondorioa: hobera egin du euskarak.

Gainera, aurreko atlasean ez bezala, Unescok euskararen hiru lurraldeetako balorazio bakar eta bateratua egin zuen 2009koan, lurraldekako desberdintasunik egin gabe. Horrela, bada, bistan da Euskal Autonomia Erkidegoko hobekuntzari esker pasatu dela 2001ean “arriskuan” edo “arrisku larrian” egotetik 2009an “ahulezian” egotera oro har. Euskal Autonomia Erkidegoko hobekuntza jarraituak konpentsatu ditu Iparraldeko atzerakada etengabea eta Nafarroako aurrerakada motela, eta, zentzu berean, Nafarroako moteltasunak eta Iparraldeko atzerakadak utzi dute EAEko euskararen egoera oraindik ere Unescoren atlas horretan presente.

Euskararen egoera, bada, batzuk aitortzen dutena baino hobe eta askok nahiko luketena baino ahulagoa da. Hazkunde baten kronika izan arren euskararena, eta galtzeko arrisku bizian dauden milaka hizkuntzen talde kide ez izan arren, euskarak atzera egiteko arrisku nabarmen eta ukaezinak ditu. Euskara urrun dago berarentzat nahiko genukeen neurriko bizi-indarra izatetik. Horretara hurreratzen joateko, bidea etengabe eta gogotik urratzen saiatu beste erremediorik ez dago, etenaldirik gabeko hobekuntza iraunkorrek baino ez baitu areagotuko pixkanaka gure hizkuntzaren indar eta presentzia soziala.

2. EUSKARA BIZIBERRITZEN ARI DA

Honenbestez, bada, ukazioaren ondotik, baieztapen batekin hasi nahi nuke idazlan honen bigarren atala: euskara biziberritzen ari da.

Azken hogeita hamar urteotako euskararen kronika, hazkunde baten kronika da, ez bairik gabe. Oro har, eta Iparraldean izan ezik, hazi eta indartu egin da euskararen presentzia gizartean, nabarmenki Euskal Autonomia Erkidegoan, eta motelago, oso apal, Nafarroan. Hori da ikerketa soziolinguistikoez erakusten dutena, bai Euskal Herriko IV. Inkesta Soziolinguistikoak, bai Euskal Autonomia Erkidegoko IV. Mapa Soziolinguistikoak, baita euskararen belaunaldi arteko transmisioari buruz egindako ikerketek ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskarak izan duen hazkundera honako arrazoi hauengatik gertatu da: besteak beste, herritarren gogoan euskara hauspotzea izan delako, herri-aginteez autogobernua euskararen zerbitzura jarri dutelako, euskarak puntako babes ofiziala izan duelako, hizkuntza politika eraginkor bat garatu delako, gizarteko hainbat arlotan sorturiko elkarteek euskara bultzatu dutelako, eta, oso bereziki, oinarritzko kontsentsu politiko batetik abiatu ginelako, nahiz eta —paradoxikoa dirudien arren— ez dugun kontsentsu hori behar beste zaindu edo hedatu elebitasunak aurrera egin ahala. Faktore horiek ahulagoak izan diren lurraldean —Nafarroan—, askoz motelagoa izan da euskararen hazkundera; eta faktore horiek gehienak falta izan diren lurraldean —Iparraldean—, euskarak atzerantz bidean jarraitu du, nahiz eta gazte elebidunen kopurua lehen aldiz oraintxe hasi den apurka bada ere gora egiten.

Euskarak ez du bere historian gaur egun adina hiztun eduki, eta inoiz bereak ez zituen esparru sozialak eta funtzionalak ditu bereganatuak gaur. Gutxi gorabehera zortziehun mila hiztun ditu, eta horietarik hirurehun mila dira euskara etxean ez baizik eta eskolan edo heldu aroan ikasi dutenak. EUSTATEk argitaraturiko datuen arabera, EAEn gaur egun bi urte edo gehiagoko herritarren %37,5ak daki ongi euskaraz; eta duela hogeita bost urte, %22k besterik ez. Orduan herritarren bi heren ziren euskaraz ezer ere ez zekiten elebakarrak; baina, gaur egun, erdia baino gutxiago dira, %45.

Bidea etengabe eta gogotik urratzen saiatu beste erremediorik ez dago, etenaldirik gabeko hobekuntza iraunkorrek baino ez baitu areagotuko pixkanaka gure hizkuntzaren indar eta presentzia soziala.

Oro har, eta Iparraldean izan ezik, hazi eta indartu egin da euskararen presentzia gizartean, nabarmenki Euskal Autonomia Erkidegoan, eta motelago, oso apal, Nafarroan.

Hazkundera are azpimarragarriagoa dirudi gure gizartean gertatu diren aldaketa soziodemografikoei erreparatzen badiegu, honako bi gertakarioi zehazki: alde batetik, urte-tarte berean biztanleria zer edo zer jaitsi egin da (euskal gizartea gero eta zaharragoa da, jaiotza-tasa oso txikia du, eta, ondorioz, gazteen multzoak, gaur egun elebidun gehien biltzen dituenak alegia, gero eta pisu gutxiago du gizarte osoarekiko); eta, bestetik, azken sei urteetan seikoiztu egin dira gure artean bizilekua aurkitu duten etorkinak. Eta, halere, gogora dezagun: 1980ko hamarraldiaren hasierako urteetatik aurrera, %0,5 handitu da urtero euskararen ezagutza.

Hamabost urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, ikaragarria da hazkundera; izan ere, gaur egun %75a da euskaraz ongi dakiena eta %10era ez dira iristen elebidun ez direnak. Duela hogeita bost urte, ordea, %20 baino ez ziren euskaraz ongi moldatzen zirenak, eta %60 erdaldun elebakarrak.

Euskararen ezagutzaren hazkundera belaunaldi gazteen artean eta eskolari esker gertatu da, batez ere. Ia hirurehun mila euskaldun berriren multzoa osatu izatea, gutxi gorabehera, bi herenetan hezkuntza sistemari eta heren batean helduen euskalduntze sareari zor zaie.

Gaur egun jada 16-24 urte bitarteko gazteen artean gutxiengoa dira erdaldun elebakarrak. Adin-tarte horretan, %57,5 elebidunak dira, eta beste %25 elebidun hartzaileak. Sakoneko aldaketa baten aitzinean gaudela, populazioaren piramidea irauli egin da zeharo: belaunaldi zaharrenek ziren euskaldunenak joan zen mendeko 70ko hamarkadan, eta belaunaldi gazteenak dira euskaldunenak gaur egun. Baina aldaketa argitsu horrek baditu itzalguneak ere, eta berekin dakartzkigu beste erronka batzuk ere, besteak beste gaur egungo gazte elebidun gehienek, atzokoek ez bezala, bigarren hizkuntza baitute euskara (ondorioz, askok euskaraz gaztelaniaz baino gaitasun murriztagoa dute) eta, beste zenbait arrazoi ere tarteko, euskararen erabilera mugatuagoa baitute.

Uste izatekoa da, etorkizunean ibilbide bertsua urratuz gero, beste hogeita hamar urte barru, erdaldun elebakarrak gutxiengoa izango direla gure artean, eta salbuespen bitxia baino ez gazteen artean. Horrek sekulako garrantzia izango du euskararen etorkizunerako. Izan ere, elebidunak, 1981ean biztanleriaren gutxiengoa izatetik, 2031n gehiengo zabala izatera pasatuko baita gizartea. Esandakoaren argitan uste izatekoa da, euskal gizarteko eliteak elebidunak izango direla. Egoera berri hori gizarte berdinkideagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko lagungarri izango da, nahiz eta ikuskizun geratzen den horrek guztiorrek zenbaterainoko eragina izango duen euskararen erabileran. Eta hau ez da bigarren mailako kontua, lehen muturreko kezka baizik, euskararen bizi-indarrak arduratzen gaituenontzat.

Elebakartasunak gero eta toki gutxiago du euskal gizartean. Elebitasuna zabaltzeko joera gorantz doa etengabe. Baina elebitasuna ez da

homogeneoa —euskal gizarteak dituen ezaugarriak izanda, eginahalak eginda ere, ezin bestela izan—: elebidun guztiak ez dira neurri berean elebidun. Elebitasunaren hazkundera fenomeno urbanoa da, batez ere. Garai bateko elebidun gehienak herri txikietan bizi ziren (baita orduan oraindik bazeuden euskal elebakarrak ere), euskal hiztunak nagusi ziren guneeetan, eta adin guztietako elebidun gehienek euskara zuten lehen hizkuntza. Errotik aldatu da hori urte gutxian. Egungo elebidun gehienak hamar mila biztanletik gorako hiriguneetan eta hiriburuetan bizi dira, euskara erabiltzeko aukera gutxiago dituzten herrietan, eta, arestian esan bezala, hogeita hamabost urtez behetiko elebidun gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza. Horrek guztiorrek zuzenean eta modu erabakigarrian eragiten du euskararen erabileran.

Beste hitzetan esanda: hazkundera behar du euskarak, masa kritikoa handitu beharrean da, baina hazkunde sozial orok saihetsezina du *hazkunde-krisia*. Euskararik gabe bizitzea nagusiki euskaraz bizitzea baino askoz errazagoa den gizarte batean, ezinezkoa da elebidun guztiak —euskaldun zaharrak bezala euskaldun berriak— neurri berean izatea elebidun eta denek euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago menderatzea eta, gainera, naturaltasunez erabiltzea. Zirkunstantzia hauetan —ez dago besterik— urtea joan eta urtea etorri, hazi eta hazi, deskantsurik gabe hazten jardun, eta, gainera, primeran eta inolako urradurarik eta ahuleziarik gabe haztea, aukera irrealak da, ezinezkoa erabat. Aurrerago jorratuko dugun euskararen erabileraren gakoetariko bat da hau, ez txikiena.

Bestalde, jakina da familia bidezko transmisio hutsaz ezin dela hizkuntza baten bizi-indarra gizartean areagotu, baina neurri berean da jakina, halaber, familian transmititzen ez den hizkuntza galbidean jarritako hizkuntza dela. Munduan barrena, ordea, prestigio sozialik ez duen hizkuntzari gibela eman ohi zaio familian, belaunez belaun gertatu beharreko transmisioa hautsiz. Hori ere gertatu izan da euskararen historian. Galerak izan ditu euskarak familian, etengabe gainera, hiru lurraldeetan. Euskal Autonomia Erkidegoan bertan ere halaxe gertatu da duela hamar urte arte. Alabaina, gaur egun, bi gurasoak elebidun direnean, erabat bermatua dago euskararen oinarrizko transmisioa EAEn, baita Nafarroan ere, baina oraindik galerek diraute Iparraldean. Euskaraz bikotekideetako batek baino ez dakienean, ordea, ez da gauza bera gertatzen: Euskal Autonomia Erkidegoan seme-alaben %86k euskara jasotzen dute etxean; baina %71k besterik ez Nafarroan; eta %45era ez dira iristen Iparraldean. Erratzeko beldurrik gabe esan dezakegu euskararen hiru lurraldeen arteko alde hauek lurralde bakoitzeko herritarren atxikimendu maila ezberdinen adierazle direla.

Hezkuntza-sistema da hiztunen gehikuntza gehien ahalbidetu duena. Joan den mendeko 80 hamarkada arte oro har erdalduna zen irakas-kuntza, derrigorrezkoa nahiz unibertsitekoa. Ikastolena zen salbuespen bakarra. Baina, ikastolei ondo merezitako merezimendu guztiak aitortu-

Gaur egungo gazte elebidun gehienek, atzokoek ez bezala, bigarren hizkuntza baitute euskara (ondorioz, askok euskaraz gaztelaniaz baino gaitasun murriztagoa dute) eta, beste zenbait arrazoi ere tarteko, euskararen erabileraren mugatuagoa baitute.

Egungo elebidun gehienak hamar mila biztanletik gorako hiriguneetan eta hiriburuetan bizi dira, euskara erabiltzeko aukera gutxiago dituzten herrietan, eta hogeita hamabost urtez behetiko elebidun gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza. Horrek guztiorrek zuzenean eta modu erabakigarrian eragiten du euskararen erabileran.

ta ere, ezin dugu ahantzi ikastolak beren hedaturarik handienean ikasle guztien %12 eskolatzera iritsi zirela. Euskara hazkunde bidean jartzekotan, beraz, nahitaez hezkuntza sistema osora hedatu behar zen elebitasuna, eta horrexegatik aitortu beharreko zorra diegu kontu honetan ere urte zail haietan buruargitasunez jokatu zuten guztiei.

1982ko Euskararen Legearen eskutik, 1983az geroztik irakaskuntza elebiduna garatu da A, B eta D hizkuntza-ereduen arabera. Gurasoek hautatzen dute, eredu horien artean, seme-alabentzako gogokoen dutena. Hogeita bost urtean zehar pixkanaka baina etengabe beherantz eraman dute A eredia gurasoek; gorantz, berriz, batez ere D eredia eta, neurri apalagoan, B eredia. Euskaraz gaitasun altuagoa eskuratzeko baliagarriago edo lagungarriago diren irakastereduen aldeko hautua egin dute guraso gehienek. Nahikoa da ikustea, irakaskuntza ez-unibertsitarioa osorik hartuta, A eredia 1982-1983 ikasturtean %80 izatetik 2010-2011n %18raino jaitsi dela, eta D eredia %12 izatetik %58raino handitu dela garai berean.

Euskararen hazkundera ulertzeko giltzarri nagusietako bat, hain zuzen ere, hauxe da: irakastereduen sistema baliagarria izan dela, gurasoek gero eta proportzio altuagoan euskarazko irakaskuntza trinkoeneren alde egin dutela eta, jakina, irakasleek eta herri-aginteez aldaketa hau ahalbidetu dutela.

Unibertsitatean ere izan du isla euskararen hazkunderak. Unibertsitatea, beranduago hasita bada ere, hazkunde horren eragileetariko bat izan da, eta izaten ari da. Euskararentzat guztiz berria da unibertsitatearen eremua; euskarak irabazi duen esparru berrietako bat da. Urtez urte gehituz joan da unibertsitatean sartzeko hautaprobak euskaraz egitea aukeratu duten ikasleen kopurua. 1995-1996 ikasturtean, sarrerako hautaprobak euskaraz egin zituztenak %27,2 izan ziren, eta 2010ean, berriz, %57,1. Aurtun, 2010-2011 ikasturtean, Euskal Herriko Unibertsitatean lehen aldiz matrikulatu diren ikasleen %44,6 lizentziatura edo gradu-ikasketak osorik euskaraz egiteko matrikulatu dira. Duela hamar urte, ordea, 2000-2001 ikasturtean alegia, %30,5 izan ziren lehen matrikula euskaraz egin zutenak. Irakasleei dagokienez, berriz, lanaldi osoko irakasle elebidunen kopurua %13 izatetik %40 izatera igo da hamar urteotan. Eta, unibertsitatearen arduradunek ezagutzera eman dutenez, gradu-ikasketetako derrigorrezko kreditu guztiak euskaraz hartu ahal izango dira 2012-2013 ikasturtean EHU.

3. ERABILERAREN KORAPILOA

Nolanahi ere, erabilerak ematen digu hizkuntza baten bizi-indarraren berri zuzena. Euskara ez da salbuespen bat. Osasuntsu ibiliko bada, hiztunak behar ditu hizkuntzak, ez salbatzaileak. Hizkuntza bat erabilia izango bada, ezinbestekoa da neurri batean bederen “ezagutzea”, baina ez da

nahikoa; gainera, ezagutzen den hizkuntza erabiltzeko aukerak behar dira, baina hori ere ez da nahikoa; erabiltzeko aukerak edukita ere, “erabili nahi” izan behar baita, eta erabiltzeko “aukera egin” (“aukera egin” diot, euskal hiztunak, gutxienez eta zorionez, elebidun baitira, ez elebakar).

Hizkuntzak, funtsean, komunikabideak dira. Ez bakarrik, jakina. Hizkuntzek komunikabide izatearen balioa besterik ez balute, ez litzateke batere gatazkatsua izango hizkuntzen kontua; baina gatazkatsua da, bistan denez. Komunikabide den neurrian bakarrik iraun dezake hizkuntzak, baina komunikabide soil baino askoz gehiago da. Hori bai, komunikabide izateari uzten badio bukatu dira gainerako balio guztiak. Alferrik dira hizkuntzarekiko maitasun suharrenak edo identitate-lotura estuenak komunikabide izateari utziz gero.

Garbi dago, beraz, hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, batez ere gizarte baten mintzabidea dela. Beraz, hizkuntza bat baliagarria izango da, baldin eta elkarrekin mintzatzeko eta elkarri zernahi adierazteko balio badu. Ez dago hizkuntzarik berez baldarra edo motza denik; zernahitarako eta noranahiko trebe, hiztunak bihurtzen du, erabiltzaileak alegia. Erabilera da hizkuntzaren sasoibide nagusia. Norbanakoen komunikazio-premiak asetzeko balio duen eta erabiltzen den neurrian da tresna balioetsua hizkuntza. Eta halatan bakarrik, ez bestela, biziraun dezake.

Euskararen erabilerari gagozkiola, azkenaldi honetako ikerketen arabera, lau gertakari dira nire ustez nabarmendu beharrekoak: batetik, hamarkada hauetan euskararen ezagutza ez ezik erabilera ere handitu egin da; bestetik, gaur egun elebidun direnek ez dute duela hamabost urte elebidun zirenek baino gehiago erabiltzen euskara; hirugarrenik, erabileraren gehikuntza ez da neurri berekoa izan adin multzo eta eremu guztietan; eta, laugarrenik, ingurune soziolinguistikoak eta etxeko lehen hizkuntzak zuzenean eragiten dute elebidunen hizkuntza hautuan, hots, euskararen erabileran. Garbi esanda, beraz, erabilera ere hazi egin da, baina erabileraren hazkundera ezagutzaren gehikuntzari zor zaio, ez elebidunek lehen baino gehiago erabiltzeari; elebidunek, izan ere, kasu batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago erabiltzen dute, nahiz eta oro har erabilera-aukera gehiago izan eskura.

Erabileran eragiten duten faktoreen artean, hauek nabarmendu ohi dituzte adituek: hiztunaren hizkuntza gaitasun erlatiboa, hiztunaren eguneroko bizitzako harreman sareetako hizkuntza edo hizkuntzak, hiztunaren lehen hizkuntza edo hizkuntzak, hizkuntzen erabilera eremuak eta hizkuntzarekiko atxikimendua. Faktore horiek guztiak korapilo berean lotuta daude, batzuek eta besteek elkarri eragiten diote; baina, zerrenda horretan batetik bosterako sailkapena egin beharko balitz garrantziaren arabera, zalantzarik gabe azken aipatu dudana jarriko nuke buruan: hizkuntzarekiko atxikimendua, alegia.

Erabileraren gainean eskura ditugun azken datuei lotuko gatzaizkie segidan. Euskal Herri osoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %25,1ek

Euskararen hazkundera ulertzeko giltzarri nagusietako bat, hain zuzen ere, hauxe da: irakastereduen sistema baliagarria izan dela, gurasoek gero eta proportzio altuagoan euskarazko irakaskuntza trinkoenaren alde egin dutela eta, jakina, irakasleek eta herri-aginteeek aldaketa hau ahalbidetu dutela.

Erabilera da hizkuntzaren sasoibide nagusia. Norbanakoen komunikazio-premiak asetzeko balio duen eta erabiltzen den neurrian da tresna baliotsua hizkuntza. Eta halatan bakarrik, ez bestela, biziraun dezake.

Erabilera ere hazi egin da, baina erabileraren hazkundea ezagutzaren gehikuntzari zor zaio, ez elebidunek lehen baino gehiago erabiltzeari.

euskara erabiltzen du neurri batean edo bestean, eta %15,3 dira euskara erdara adina edo gehiago erabiltzen dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera proportzio hauek altuagoak dira, %29,6 baitira euskara gutxi edo asko erabiltzen dutenak, eta %18,6 gaztelania adina edo gehiago baliatzen dutenak. Adin-talde guztietan oraindik ere guztiz nagusi da gaztelaniaren erabilera, baina etengabe doa beherantz gaztelania hutsean hitz egiten dutenen kopurua (%77,7 ziren 1991n, eta %70,4 2006an, hamasei urte edo gehiagokoan artean; gazteagoen artean are handiagoa da beherakada). Apurka bada ere, azken hamabost urteotan gora egin du erabilerak Euskal Autonomia Erkidegoan, gora adin talde guztietan, hirurogeita bost urtetik gorakoan artean izan ezik. Gehikuntzarik handiena, gazteen artean gertatu da: 16-24 tarteko gazteen %24k gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dute euskara, 1991n %12 baino ez ziren bitartean. Bikoiztu egin da gazte horien artean erabilera. Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara: hogeita bost urtetik beherakoan artean, etengabe doa beherantz gaztelaniaren erabilera eta gorantz euskara gaztelania baino gehiago hitz egiteko joera. Oro har, adin talde guztiak kontuan hartuta, 1991tik 2006ra bitartean, zazpi puntuz hazi da euskararen erabilera osoa (erabilera osoa da euskara “gaztelania beste”, “gaztelania baino gehiago” edo “gaztelania baino gutxiago” erabiltzen dutenen batura). Hori bai, alde handiak daude hiru lurraldeen artean.

Aipaturiko gehikuntza horretan, ordea, antzematen dira bi kontu errealtatea zorrotz ikusi nahi badugu kontuan hartu beharrekoak: bate-tik, batez ere eremu formaletan gertatu da erabileraren gehikuntza, nagusi osasun zerbitzuetan, udal zerbitzuetan, lan munduan eta banketxeetan. Lagunekiko eta seme-alabekiko harremanetan ere gehikuntza gertatu da, baina askoz apalagoa. Etxeko erabilera mantendu baino ez da egin azken hamabost urteotan: %21,4 dira etxean euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutenak. Horrek bi gauza jartzen ditu agerian: bata, gaur ere oraindik etxean kalean baino gehiago erabiltzen dela gaztelania beste edo gehiago euskara (hori ez da txarra); eta bestea, etxeko erabileran ez dela hobekuntzarik izan azken hamabost urteotan, seme-alabekiko erabileran izan ezik. Horrek oso aintzakotzat hartu beharreko bigarren kontuaren aurrez arre jartzen gaitu, honakoaren aurrez aurre: erabileraren gehikuntza ezagutzaren gehikuntzari zor zaiola, gaurko elebidunek ez baitute atzokoek adina edo gehiago erabiltzen, gutxiago baikasun kasu askotan eta adin-talde batzuetan.

Erabilera, beraz, esparru publikoan handitu da, herri-aginteen arauen eraginpeko esparruan; ez, ordea, esparrurik pribatuenean: etxeko salan eta sukaldean. Elebidun gehiago izateak, elebidun kopuruaren hazkundeak alegia, ez du konpentsatzen gaur egun elebidunek atzokoen aldean egiten duten euskararen erabilera apalagoa esparru ez formaletan. Nire ustean, alabaina, erabileraren korapiloa askatzeko giltzarrietako bat zera da: gaurko belaunaldi gazteek beren eguneroko bizitzan (eta batez

ere esparru ez formalean: gaur lagunartean, bihar bikotekidearekin eta familian, etzi seme-alabekin...) egiten duten hautuan euskarak leku nahikoa eta sendoa izatea, beren ondokoei euskara etxetik beretik transmitituko dien hiztun masa kritikoa gero eta zabalagoa izan dadin.

Beste hitz batzuekin esanda, beraz, hauxe genuke datozen urteotarako helburu nagusietako bat: herritarron euskararekiko atxikimendua sendotzea. Euskal hiztunon artean euskara erabili nahi izatea sendotzea. Euskararekiko leialtasun praktikoa tinkotzea. Euskara hizkuntza akademiko eta formal huts izateari ataka jartzea, "euskara jalgi hadi plazara!" aldarriaren ondoan "euskara hator etxera eta lagunartera!" gauzatzea, euskararen erabilera eremu ez formaletan etengabe areagotzea alegia. Helburu handia, baina egingarria, gure ez beste inoren esku baitago.

4. EUSKARA BIZIBERRITZEN JARRAITZEKO AURREAN DITUGUN ERRONKA NAGUSIAK

Laburtu beharrez esan dezagun besteak beste hiru dema nagusi ditugula euskara etorkizunez beteriko hizkuntza izatea nahi dugunok: hizkuntza hegemonien diskurtsoa eta paradigma gainditzea; euskal hiztunen erki-degoa trinkotzea; euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera jarraitzea, hots, euskararen hazkunde soziala ahalbidetzea.

"Estatu bat = nazio bat eta hizkuntza bat" eta "nazio bat = hizkuntza bat" paradigmatik gaitzeko garaia dugu. Elebakartasuna, komunikazio eta antolaketa sozialaren paradigma gisan, ez da onargarria; ez bakarrik erreala ez delako, baizik eta, gainera, ez delako hori herritar gehienek gogoan. Paradigma berria eleaniztasunaren kudeaketa demokratiko eta iraunkorrarena da, nire iritzian bederen.

Egitatez edo omisioz hizkuntza hegemonikoen ikuspegia sustatzen dutenek, onartu beharra dute elebakartasunaren ikuspegia zaharkitua dagoela, ez dela hori euskal gizarteak nahi duena eta, beraz, ez duela balio etorkizunean euskal gizarte kohesionatua eraikitzeko. Hortaz, onartu beharra dute euskarari leku "behar bestekoa" eta oparua egitea dago kiela, ez inoren eta ezeren kaltean, bizikidetzaren mesedean baizik. Euskarak, normaltasunez garatuko bada, arnagune funtzionalak eta geografikoak behar ditu, gehien erabilitako hizkuntza izango den eremuak behar ditu, eta hori ahalbidetzea dagokie gaur egungo hegemoniadunei. Ohartu behar dira gaur eta hemen, gaztelania eta euskararen arteko desorekaren ondorioz, euskararen hautua egiten dutenak direla beraiek aukeraturakotako hizkuntzan han eta hemen inolako trabarik gabe jarduteko zailtasunak —zenbaitetan ezintasunak— dituztenak, eta hori gaitzeko ezingo dela gaztelaniaren hegemonia elebakarrean daudenean elebitasunerantz urratsik eman ezean.

Eta euskaltzaletasunaren aldetik, gaitzeko beharra dago hizkuntza ordezenaren ikuspegia, alegia, ez dugula euskararen etorkizuna eraiki-

"Euskara jalgi hadi plazara!" aldarriaren ondoan "euskara hator etxera eta lagunartera!"

Paradigma berria eleaniztasunaren kudeaketa demokratiko eta iraunkorrarena da, nire iritzian bederen.

***Gainditu beharra dago
hizkuntza ordezenaren
ikuspegia, alegia, ez
dugula euskararen
etorkizuna eraikiko
gaztelania ordezen —are
gutxiago baztertzen—
saiatuz, baizik eta
euskarari beste
hizkuntzen artean lekua
eginez (gaztelaniaren
ondoan Hego Euskal
Herrian, frantsesaren
ondoan Ipar Euskal
Herrian, ingelesaren
ondoan han eta hemen).***

ko gaztelania ordezen —are gutxiago baztertzen— saiatuz, baizik eta euskarari beste hizkuntzen artean lekua eginez (gaztelaniaren ondoan Hego Euskal Herrian, frantsesaren ondoan Ipar Euskal Herrian, ingelesaren ondoan han eta hemen), Mitxelena esan zuen modura, “iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia” eginez. Bizikidetzaren interesekoa da euskara erdararekin “konpainia noblean” bizitzeko lekua eraikitzea, bai noski; baina lehenik eta behin euskararen beraren interesekoa dela uste dut nik. Onartu behar dela uste dut, batzuentzat euskara eta beste batzuentzat gaztelania izatea lehen hizkuntza edo hizkuntza nagusia, bakoitzak gauza batzuetarako hizkuntza bat eta beste batzuetarako bestea erabiltzea, solaskide batzuekin batez ere hizkuntza batean eta beste batzuekin bestean jardutea, zonaldez zonalde aldeak egotea.

Ez dakit datorren mendean zein izango den hemengo bi hizkuntzen arteko erlazioa euskal gizartean, zein izango den eleaniztasunaren isla gure gizartean, baina datozen 50 urteei begira, fikzio legez planteatuta ere fikziozkoegia iruditzen zait —beraz erakarmenik eta interesik gabeko proposamen absurdoa— uste izatea hemengo eremu publikoko hizkuntza komun bakarra euskara izan litekeela. Berdinkidetasunaren eta askatasunaren kontrako, bizikidetzarako kaltegarria eta, beraz, onartezina iruditzen zait hizkuntza hegemonikoa —gaztelania— eremu publikoko hizkuntza komun ia bakar eta obligaziozkotzat proposatzen duen tesia, baina, orobat, 50 urte barru EAE eta Euskal Herri osoko bazter guztietako eremu publikoko hizkuntza komun ia bakarra euskara izateko proposamenarekiko ere ezinago urrun ikusten ditut nire pentsaera eta errealtatea bera. Bizkaia eta Arabako herritar gehienek gaur egun ez dakite tutik ere euskaraz, eta EAeko herritarren %70ek gaztelania bakarrik erabiltzen du. Hori horrela bada, euskara ere hizkuntza komuna izan dadila bai, jakina, baina ameskeria hutsa ez ote da euskara eremu publikoko hizkuntza komun *bakarraren* proposamena? Eta, gainera, onargarria al da bizikidetzaren ikuspegitik? Zergatik egin beharko lioke inork uko etorkizunean ere gaztelaniari? Euskaraz bizi nahi duenak gaur ez bezala inolako traba eta galkargarrik gabe, normaltasun osoz, aukera hori balia dezan, uko egin behar al zaio gaztelaniari? Oso ibilbide laburra izango luke euskarak hori balitz —ez dut uste inondik ere hala denik— euskararen erabilera eremu publikoan bermatzeko eta areagotzeko baldintza.

Honenbestez, guztiz gainditu eta baztertzekoak dira, bai batzuen “en castellano y punto, que todos entendemos” bezalakoak, bai besteren “euskaraz eta kito, ikas dezatela” bezalakoak. Aitzitik, joera hegemoniazaleak nahiz hegemoniaren egarri diren joera erresistentzialistak alde batera utzirik eta hizkuntzen arteko liskar giroak erabat gaindituz, gure gizarteak etorkizunean halaberrez izango duen zutoin nagusietako bat hizkuntzen arteko elkarbizitza delakoan heldu behar zaio dema honi. Horretarako ezinbestekoa da ohartzea euskararen etorkizuna gure ez beste inoren esku dagoela. Euskal herritar guztiok —elebidunok nahiz elebarrak—

gure buruari galdetu behar genioke: *zer egin dezaket nik euskararen alde?* Hizkuntzen arteko elkarbizitzak denok behar baikaitu: elebakarrak gehiago inplikatu behar dira hizkuntza elkarbizitzan (euskal munduetara gehiago hurbilduz, euskara neurri batean edo bestean ikasiz, erabiltzeko aukerak zabalduz...); eta elebidunok ekarpenik bikainena eta mobilizatorik eraginkorrena zor diogu euskarari: euskal hiztunago, euskara-erabiltzaileago bihurtzea; hizkuntzari dagokionez euskaldun izatearen eta euskaldun jokatzearen artean leize-zulorik ez uztea dagokigu.

Hizkuntza politika eraginkorra eta euskararen sustatzailea egiteak legitimitate politikoa, etikoa eta soziala ditu. Legitimitate politikoa du herritarren ordezkaritza nagusi baten adostasunaz landutako legerian eta araubidean oinarritua dagoelako; erabat legitimoa da euskararen erabile-ra herri-aginteez egiazki sustatzea eta gizarte elebiduna eraikitzeke bidean gehiegikeriarik gabe baina etenik gabe aurrera egitea, herritar guztiei euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko eskubidea balia dezaten babesa emanaz. Legitimitate etikoa du ezinezkoa delako hizkuntzen eta, beraz, herritarren berdinkidetasuna lortu aukera berdintasuna bermatu gabe, hau da, egun dugun hizkuntza desoreka gainditu gabe eta, beraz, hartarako ezinbestekoak diren politika konpentsatorioak aplikatu gabe. “Ez inposatu, ez eragotzi” printzipioak berma dezake hizkuntza aukeratzeko askatasuna. Kontua horixe baita: gaztelaniaren aukera eta euskararena biak errespetatzea, eta, beraz, elebakarren hizkuntza eskubideak elebidunen eskubideen gainetik ez jartzea, hots, elebakarrek praktikan ez eragoztelelebidunen hizkuntz hautua. Eta legitimitate soziala du, arestian esan dugun legez euskal gizarteak behin eta berriz berretsi duelako elebidun izan nahi duela.

Alde honetatik begiratuta, oso arriskugarria ikusten dut euskararen sustapenerako hizkuntza politika positiboa inposizioarekin lotzeko batzuek darabilten diskurtso politikoa. Oraindik orain, herri agintari batzuek aldarrikatu dute iragan urteetan euskararen inposizioa gertatu dela administrazioan, adibidez, hizkuntza eskakizunen sistema dagoelako. Osakidetzako zerbitzuei buruz ari zirela kontuan hartuta, agian gogorarazi beharko genieke erakunde horretan ez dela %16ra iristen hizkuntza eskakizuna derrigorrezko izaeraz duten lanpostuen kopurua; halaber, herri agintari horiei gogorarazi beharko genieke onenean ere paradoxikoa dela halako inposizio mamurik plazaratzea, non eta ez epaile edo fiskal izateko, zinegotzi edo alkate izateko, legebiltzarkide edo diputatu nagusi izateko, sailburu izateko ez Legebiltzarreko presidente izateko ez lehen-dakari izateko derrigorrezkoa ez denean euskaraz jakitea. Hizkuntza politikan, politika publikoaren edozein alorretan bezala, bada zer zuzendua, zer hobetua. Ez zaie kritikari eta autokritikari beldurrik izan behar. Ausardia behar da gehiegikeriarik baldin bada zuzentzeko, eta gauza bera gutxiegitasunik baldin bada halakoak zuzentzeko ere. Alabaina, horretarako eztabaida eta elkarrizketa zintzoa bultzatu behar lukete herri aginte-

*Euskal herritar guztiok
–elebidunok nahiz
elebakarrok– gure
buruari galdetu behar
genioke: zer egin dezaket
nik euskararen alde?*

*Hizkuntza politika
eraginkorra eta
euskararen sustatzailea
egiteak legitimitate
politikoa, etikoa eta
soziala ditu.*

***Giltzarria da
euskarentzako
arnasguneak zabaltzen
jarraitzea eta euskal
hiztunon erkidegoa
sendotzen eta trinkotzen
jarraitzea.***

ek, saihestuz neoliberalismorik zurrun eta gogorrenaren haritik erregulazioa inposizioarekin eta esku-hartze ez legitimoarekin lotzen duten diskurtsoak, gizarte demokratikoan ezin baitira sinonimotzat jo erregulazioa eta inposizioa, ez hizkuntza politikan ez berdinkidetasuna sustatzeko beste politika sozialetan. Interes orokorra, berdinkidetasuna eta kohesio soziala bermatzeko eta babesteko arauak ematea dagokie herri-aginteei, ahulenaren aldeko politikei bidea irekiz, baita hizkuntza kontuetan ere.

Itzul nadin erabilerari lotutako kontuetara. Erabileran ere aurrera egiten ari da euskara, baina ez ezagutzaren erritmo berean. “Horrek esan nahi du hizkuntza politika hori gaztelaniaren morroi dela eta ez duela balio euskara indartzeko”, diote mutur batetik; “horrek erakusten du herritarrek ez dutela horrenbeste euskara nahi, hizkuntza politika nazionalisten luxu bat eta inposizio bat dela, dirua alferrik gastatzea”, diote beste muturretik. Paradoxikoa ez bada, gero! Dirudienez biek uste dute torlojuak egitea bezain automatikoa dela herritarren hizkuntz jokabidean eragitea, eta biek ahazten dute normala dela —ez gogoko duguna, bai ordea ahal den eta ohikoa den fenomeno bakarra— ezagutzaren neurri berean ez gehitzea erabilera. Adibidez, euskara eskolan ikasi duten haurrek (ezagutzaren estatistika gizentzen duten horiek) nekez erabiliko dute euskara gaztelania baino ez dakiten gurasoekin (erabileraren estatistika ezin gizendu). Normala izateak ez gaitu, ordea, lasaitu eta arazo edo muga horri bizkarra erakustera eraman behar; hori baita, ezbairik gabe, arduratu behar gaituen fenomenoetariko bat, ez txikiena. Euskara biziberritzeko prozesuak dituen muga sozial estrukturalen artean erabilerari dagozkionak daude. Eta horien artean bada bat, maiz asko oharkabean izaten duguna baina gaurko Euskal Herrian berebiziko garrantzia duena erabilerari begira: hiztunaren ezagutza maila.

Esana dugu gaurko elebidunen artean asko direla euskaldun berriak edo euskara bigarren hizkuntza (L2) dutenak, batez ere gazteen artean. 16-24 urte bitarteko elebidunen %56k L2 dute euskara, beren burua erdal elebidun definitzen dute. Adin tarte horretan %21,6 bakarrik da bere burua euskal elebiduntzat jotzen duena. Horrek esan nahi du, oro har, hobeto moldatzen direla gaztelaniaz euskaraz baino. Bestalde, ezagutza mailak eta hizkuntzarekiko loturak (afektiboa...) erabilera ez formaletan, eta bereziki etxean, eragin nabarmena du: euskaldun zaharren %86k etxean nagusiki erabiltzen dute euskara; euskaldun berrien %89k, ostera, gaztelania erabiltzen du. Gune soziolinguistikoaren arabera ere alde nabarmenak daude, ezagutzari lotuak, euskararen erabileran: 1. eta 2. gune soziolinguistikoetan, elebidunetan gehiago zabalak gaztelania erabili ohi du euskara baino gehiago bere eguneroko bizitzan; 3. gunean hasten dira nagusi izaten (%57tik aurrera) euskara gaztelania baino gehiago erabili ohi dutenak.

Erabileran eragiten duten faktore horien muga estrukturalak kontuan hartuz, beraz, hizkuntza politika eraginkorra egiten jarraitu beharra dago, euskararen erabilera arian-arian esparru informaletan ere indar dadin.

Horretarako, beste hainbat gauzaren artean, nahitaezkoa da herri aginteez elebitasunaren aldeko sentsibilizazio lana etengabea egitea (herritarren borondatearen neurrian baina konplexurik eta aitzakiarik gabe), euskara erakargarritasunarekin uztartuz eta aberastasun pertsonala, kulturala eta soziala darizkion komunikabidea eta ondarea dela azpimarratuz.

Ildo horretan sakonduz, giltzarria da euskarentzako arnaguneak zabaltzen jarraitzea eta euskal hiztunon erkidegoa sendotzen eta trinkotzen jarraitzea. Izan ere, erabakigarria da, esaterako, euskararen bizi-indarra trinkotzeko ahaleaginean aurreratu daitekeena, etxetik euskal hiztun direnek euskara esparru guztietan, eta bereziki ez-formaletan, ohikotasunez gero eta gehiago erabiltzen badute, horrela bakarrik izango baitira euskara adierazkortasunez, bizitasunez eta naturaltasunez erabiltzen duten hiztunak. Orobat, guztiz erabakigarria da euskaldun berriek hizkuntzari eman diezaioketen bizi-indarra, eskolan nahiz unibertsitatean edo zerbitzu publikoetan ez ezik familian eta lagunartean euskara erabiliz. Giltzarria izango da, hain zuzen ere, guraso euskaldun berriek euskara (edo euskara ere) beren seme-alaben etxeko hizkuntza izatea lortzea, 15-20 urte barru euskara era natural, bizi eta adierazkorragoan erabil dezaketen hiztunen masa kritikoa eta erkidegoa arrunt biderkatuko bailitzateke.

Hizkuntzen elkarbizitarantz eta orekarantz urratzen ari garen bidea zabaltzeko eta sendotzeko, hazi beharra dugu ezagutzan. Gizarte elebiduna eraikitzeko herritar elebidunak behar ditugu, jakina. Baina alferrikakoa dugu, euskararen bizi-indarra areagotzearen ikuspegitik, euskaraz dakitenean kopurua haztea, benetan hiztun direnen erkidegoa sendotzen eta trinkotzen ez badugu, hiztunen euskararekiko lotura naturala sendotzen ez badugu.

Eta horren ondoan, aipamen bat behar-beharrezkoa dugun elebitasun pasiboaren gainean. EAEko 30-55 adin tarteko herritarren %42 erdaldun elebakarra da. Ameskeria hutsa da uste izatea horiek, edo horien parte handi bat, euskaraz han eta hemen normaltasunez jarduteko neurrian euskaldunduko direla. Hori ameskeria den bezala litzateke, ordea, utzikeria galanta horiek guztiak erdaldun elebakar izatera kondenatzea. Gutxienez euskaraz ulertzea irits daitezen estrategiak bultzatzearekin denek lukete zer irabazi: beraiek bezala euskaraz bizi nahi duten herritarrek.

5. ADOSTASUNA, HIZKUNTZAREN ETORKIZUNA HERRITARREN ESKU BAITAGO

Gaur-biharretan gogoan eduki beharko genituzkeen aldagai batzuk dakartzat amaierara, nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak hiru, Iparraldeari eta Nafarroari dagokiena bestea.

Lehen: adostasun sozial eta politiko zabala. Hona ekarri gaituen bidearen abiaburuan, funtsezkoa izan zen joan den mendeko 80 hamarkadan euskararen inguruan eratu zen adostasun politiko zabala. 1982.

*Gutxienez euskaraz
ulertzea irits daitezen
estrategiak
bultzatzearekin denek
lukete zer irabazi: beraiek
bezala euskaraz bizi nahi
duten herritarrek.*

Kontua da nahitaezkoa dela hori bizikidetzarako, eta askotarikoen arteko adostasun sendorik gabe jai duela euskarak.

urtean, Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza nagusia zuten talde abertzale eta ez abertzale gehienek adostasunez onartu zen 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilpena "arautzen" duena. Lege hark euskara babesteari begira hainbat obligazio ezarri zizkien herri-aginteei, eta euskara erabiltzeari begira hainbat eskubide aitortu herritarrei. Hura izan zen oinarria, oinarri ezin sendoagoa, printzipio demokratikoetan zurkaiztua zegoelako eta adostasun politikoak babestua zegoelako. Adostasun hartatik kanpora geratu ziren PP eta HB. Adostasun hari pitzadurarik eta murrizketarik gabe eutsi beharko litzaioke, eta areagotu, adostasun hura zabaltzea eta sendotzea baita erronka berriei erantzuteko ezinbestez behar dena. Gainera, pentsa liteke adostasun politikoa sendotzeak adostasun soziala areagotzeko balioko lukeela.

Adostasunak solaskideen ikuspuntuei ere lekua egitea eskatzen du. Adostasun puntuak beti izan ohi dira batzuek nahiko luketena baino gehiago eta bestetuek nahiko luketena baino gutxiago. Kontua da nahitaezkoa dela hori bizikidetzarako, eta askotarikoen arteko adostasun sendorik gabe jai duela euskarak.

Bigarrena: hizkuntza-politika eraginkorra, zilegia eta sustatzailea. Oinarrizko legearen itzalean araubide juridiko zehatza eta euskara sustatzeko politika zabala ezarri ziren abian, hezkuntzaren alorrean, hedabideetan, administrazioan, zerbitzu publikoetan, aisialdian, lan munduan eta abarretan bi hizkuntza ofizialetan ahulenari —euskarari— behar zuen toki eta eginkizuna ematearren. Horretan behar da jarraitu, geldialdirik eta atzerapausorik gabe. Arazo berriei irtenbide berriak aurkituz, eraginkortasunez beti, eta ahortuz gabe zein den gainditu beharreko desoreka (euskarak gaztelaniarekiko duena), zein den anomalia (gizartearen zati bat elebakarra izatea), eta hori guztia baretasunez, soseguz eta inoren aurkako gehiegikeriarik gabe egin behar dela, baina erabat ezinezkoa dela deserosotasunik gabe egitea.

Hirugarrena: aurrekoarekin loturik, gizartearen eta herritarren borondatea. Aro demokratikoan daramatzagun hiru hamarkada hauetan, euskal gizarteak eta herritarrek —erakunde, elkarte eta abarretan antolatutako eragile sozialek eta norbanakoek— behin eta berriz berretsi eta sendotu dute euskararekiko estimua eta nahia. Euskal gizarteak elebitasunaren aldeko apustu garbia egin du eta euskara biziberritzeko ahalegin sozio-politikoak babestu eta eragin du.

Laugarrena: Iparraldeko eta Nafarroako herri-aginteen jarrera aldatzea komenigarria ez ezik, beharrezkoa da. Iparraldean azken urteetan herri-aginteei ekin diote, apalki bada ere, EEPren eskutik hizkuntza politika egiteari. Nolanahi ere, lege-babesa beharrezkoa da. Nafarroan bada neurri bateko lege-babesa, oso eztabaidatua eta mugatua, baina, kontuak kontu, lege-araudi horrekin berarekin egin ahalko litzateke beste hizkuntza politika sustatzaileago bat, nafarren borondatea behartu gabe, baizik eta nafarren borondatearekin bat letorkeena eta bizikidetzarako positiboa izango litzatekeena.

Ondorioa bistan da, nire irudiko: herri-aginteek jarraitu behar dute euskararen ezagutza bermatzeko neurriak hartzen eta euskararen erabilerarako aukera errealak sendotzen eta zabalitzen. Ezinbestekoak dira herri-aginteen hizkuntza politika eraginkorra eta legezko babesa. Baina, kontuz! Azken hitza, eta azken-aurrekoa ere, herritarrak dauka: hizkuntzaren erabilerari eta, beraz, sasoiari begira, herritarraren hizkuntzarekiko atxikimendu librea eta hiztunaren leialtasuna dira, ororen gainetik faktore erabakigarrienak, elikatu bai, baina arautu, inola ere arautu ezin litezkeen faktoreak, hain zuzen ere.

Partida honetan, euskararekiko atxikimendua indartzea da hizkuntza pluraltasunaren balioan sinesten dugunoi bete-betean dagokigun jokaldia. Eta herritarren atxikimendua diogunean, herritar guztiena aipatu nahi dugu: elebidunena ez ezik baita gaur elebakar direnena ere, hauen erantzukizuna ere bada-eta, euskararen eta elkarbizitzaren dema. Partida honetan, azken batean, hizkuntzen elkarbizitza dagoelako jokoan, hau da, elkarbizitza sozialaren zati handi bat, eta elkarbizitza horretan denok gara partaide, elebidunak bezala elebakarrak.■

*Partida honetan,
euskararekiko
atxikimendua indartzea
da hizkuntza
pluraltasunaren balioan
sinesten dugunoi
bete-betean dagokigun
jokaldia.*